

- 53 Compotus del abbat de Anchurrea. Tomo 1. año 1265.
 54 Cuenta correspondiente al año 1362; Ultrapuertos. En el tomo 3.
 55 Compto de Johan Izard, baile de San Juan (lat.) Tomo 8, año 1304.
 56 Compto de Esteban Rosas, colector de la Nabarrería (lat.) Rollo de cuentas, año 1323, n.º 26, caj. 6.
 57 Compto de D. Pontz de Monrrodad, Tomo 2, año 1279.
 58 Cuenta perteneciente al año 1332. En el tomo 3.
 59 Conto de Johan Lopiz de Urroz, Merino de Pomplona, correspondiente al año 1315. Tomo 15, año 1314.
 60 Rollo de cuentas, año 1323, n.º 26, caj. 6.
 61 Compto de Johan Izard, castellano de San Juan (lat.) Tomo 9, año 1305.
 62 Conto de Johan de Vaneylla, Merino de la Ribera. Tomo 4, año 1290.
 62 Rolde de peticiones, rollo n.º 39, caj. 5.
 64 Id. id. id.

PELEGRINOAREN BIZI-MODU NEGARGARRIA

Donostian amar zortzikotan agurtua 1848.^{garren} inñauteritan

Pelegirino bizia
 Nai dueank jakiñ
 Erras ikasiko du
 Chanponcho batekin:
 Gure kanta berriak
 Erostiarekin,
 Irakutzzen baditu
 Fede onarekin.

Pelegirinoak ditu
 Nork bere modura,
 Esklabiñankuskullak
 Solbardatik bera:

Bordoyetik zintzilik
 Kurkubitan ura,
 Barrena bustitzeko
 Egarrri bagera.

Gutziz gogorrek dira,
 Samiñez beteak,
 Sinistatu eziñik
 Gure naigabeak:
 Eta gero gañera
 Ez dira obeak,
 Oñezko ibillera
 Nekeko luzeak.

Beren gazte denboran
 Nekera oitua
 Bear nai duenak
 Ikusi mundua;
 Indarra, osasuna
 Etasoportua,
 Bestela laster dauka
 Bizia galdua.

Neguan elur aize
 Ormakin bidean,
 Erropa milla puska
 Egiña soñean:
 Oñak erdi estali,
 Aztalak aidean,
 Gabaz ezin berotuz
 Otzak legorpean.

Udako beroakin
 Beti eguzkitan,
 Kiskaltzeko zorian
 Ordu guztietan:
 Beroak erre nairik
 Neke izerditan,
 Mingaña aterarik
 Gose egarritan.

Gure alde daukagu
 Gauza bat bakarrik,
 Ez zaigula irtetzen
 Ridera lapurrik.

Gurekin galdu gabe
 Denbora alperrik,
 Ez diogute hada
 Batere bildurrik.

Pelegrinatzen oñez
 Gatoz Erromatik
 Aita Santu Pionen
 Bere oñetatik:
 Donostiako erria
 Ikusteagatik
 Eta zerbait limosna
 Bildutzeagatik

Emendik zuzenean
 Daukagu asmoa
 Ikusteko patroia
 Españiakoa:
 Apostol Santiago
 Konpostelakoa,
 Gure fedeko santu
 Deboziozkoa.

Uste det kanta obek
 Aditu ondoren,
 Biotzik gogorrenak
 Bigunduko diren:
 Erremedia bitez
 Jendeak len-bailen,
 Esperantza orrekin
 Despeitzen naiz emen.

JOSÉ VICENTE ECHEGARAY.